



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Azaroak 9 (12:00). Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

Bizkaibuseko autobusen kanpoaldean iragarkiak jartea proposatzen dau Socialistas Vascos Taldeak.

- **Bihar, Bizkaiko Batzar Nagusietan eztabaidatuko da Bizkaibuseko autobusen kanpoaldean iragarkiak jarteko aukerak aztertzeari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Bizkaiko Talde Popularrak gura dau neurri hori Metro Bilbaoren trenetara be zabaltzea.**

Bilbon, 2012ko azaroaren 8an

Bizkaiko Batzar Nagusietako Socialistas Vascos Taldeak Arauz Besteko Proposamen bat aurkeztu dau Bizkaibuseko autobusen kanpoaldean iragarkiak jartea eskatzeko. Sozialisten aburuz, “sarrera gehigarriak lortu eta zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzeko” balioko dau neurri horrek, “krisialdiak dituan eraginak arintzearren”. Ekimen hori bihar, Herri Lan eta Garraioetako Batzordearen bileran, eztabaidatuko da.

Bizkaiko Talde Popularrak zuzenketa-eske bi egin deutzaz sozialisten ekimen horri. Horreetariko baten popularrak eskatzen dabe Aldundiak aztertu dagiala neurri hori Metro Bilbaoko trenetara be zabaltzea. Gehiketazko zuzenketa-eske berean, popularrak eskatzen dabe Bizkaiko Foru Aldundiaren Telebista kanala jartea autobusetan zein trenetan.

Oinezkoentzako pasabideak

Batzordearen bilera horretan eztabaidagai izango dira be A-8 autopistearen eta N-634 errepidearen ganean jarritako oinezkoentzako pasabide batzuk hobatzera bideratutako ekimen bi. Horreetariko lehenengoan, Garaizarreko bidea autopistearen ganetik igaroteko oinezkoentzako pasabideari buruzkoan, Socialistas Vascos Taldeak uste dau Aldundiak ez dauela bete Iurretako Udalak egin eutsan alegazinoan eskatutako pasabidea, hain zuzen be “metro biko espaloiduna eta segurtasuneko hesi eta guztiduna”.

N-634 errepidea zeharkatzeko Abadiñon dagoan oinezkoentzako pasabideari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamenean, Talde horren ustez egitura horrek “hainbat akats ditu, bertatik dabilzanak arriskutan jarterainokoak”, batez be umeak badira. “Horizontalean jarritako kablez eginda dago eta kableok nasaituta dagozanez, tarte handiegia geratzen da” dinoe sozialistek. Euzko Abertzaleak Taldeak zuzenketa-eskea aurkeztu dau. Talde abertzalekoek dinoe “pasabideak eraikitze dagoen araudi aplikagarria betetzen” dabela, baina halanda guzti be erremate batzuk egin behar dirala “dabilzanen segurtasun sentsazinoa hobatzearren”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVOCATORIA DE PRENSA

9 de noviembre (12.00 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte

El Grupo Socialista propone que se estudie la colocación de publicidad exterior en los autobuses de Bizkaibus

- **Mañana, las Juntas Generales debatirán una Proposición No de Norma para que la Diputación examine esta posibilidad como medio para buscar nuevas fórmulas de financiación. Los populares quieren que se estudie la extensión de esta medida a las unidades de Metro Bilbao.**

Bilbao, a 8 de noviembre de 2012

El Grupo Socialistas Vascos en las Juntas Generales ha presentado una Proposición No de Norma que persigue la introducción de publicidad exterior en los autobuses del servicio de Bizkaibus. Los socialistas entienden que esta medida servirá para obtener ingresos adicionales que “permitan mantener y mejorar los servicios públicos”. Creen que aún queda margen para proponer nuevas vías de financiación que “puedan ayudar a paliar los efectos de la crisis”. La iniciativa se debatirá mañana viernes en la Comisión de Obras Públicas y Transporte.

El Grupo Popular en la cámara vizcaína ha presentado dos enmiendas a la propuesta socialista. En una de ellas, los populares solicitan que el Gobierno foral estudie también la aplicación de esta medida en las unidades de Metro Bilbao. En el mismo texto de adicción, este grupo propone a la Diputación Foral instalar el canal de TV gubernamental en ambos medios de transporte público.

Pasarelas peatonales

Por otra parte, la Comisión debatirá seguidamente varias propuestas para instar a la Diputación a mejorar dos pasarelas peatonales instaladas en la A-8 y en la N-634. En la que permite el cruce del camino Garaizar (Iurreta) sobre el tronco de la autopista, el Grupo Socialista considera que la Diputación no ha cumplido con la alegación presentada por el Ayuntamiento de Iurreta que le pedía diseñar una nueva estructura “con aceras de dos metros y barrera de seguridad”.

En lo que respecta a la pasarela construida sobre la N-634 a la altura del barrio de Matiena en Abadiño, el Grupo Socialista afirma que la estructura presenta “importantes deficiencias que ponen en riesgo la seguridad de los viandantes”, especialmente la de los niños. El cableado horizontal de sus barandillas se “encuentra destensado” lo que “deja una altura excesiva”. A través de una enmienda, el Grupo Nacionalistas Vascos considera que esta pasarela “cumple



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

con toda la normativa”, si bien plantean en su escrito la realización de algunos "remates" para mejorar la “sensación de seguridad”.